



KUTXA Enplegatuen Elkartea	Xenda-zaletasun atala
117. zka 5. etapa GR-38	Estibalitz - Urbina 2016/5/7-8

Adiskide mendizaleok:

“Ardoaren eta Arrainaren Bideko” bosgarren etapa, Argandoña (Estibalitzko santutegia) eta Urbina artekoa. Xenda belartsu batean zehar ibilbide honetako lehen herrira, Oreitia-ra, iritsiko gara.

Herri-gune txiki honek (74 biztanle, 2009. urteko erroldaren arabera) baditu intereseko eraikin batzuk, eta XVI. mendeko bi jauregi nabarmentzen dira: Ortiz Zarate-tarren jauregia, herri-sarreran kokatua, eta “Dorre Zuria” jauregia. Nabarmentzekoa da, halaber, XIII. mendeko eliza, XVII. mendeko erretaula eta XVI. mendeko bataiarri edo pontearen dituen, xehetasun bitxi batekin idi-begi edo okuloaren gainean: zaldun tenplario batek, lantza eskuan, mendebaldera keinu egiten du Donejakue Bidea erakusteko.

Gure hurrengo helmuga Arbulo herria izango da, eta handik Urizarri-Ganboako urtegira hurbilduko gara, ikuspegi ederrez gozatzeko. Euskal Herriko urtegi handiena da, 146 hm³ko edukieraz, eta hiru betekizun dituen hiru urtegiko sistema da:

Lehenik, Gasteiz eta Bilbo hornitzea; bigarren, Zadorra ibaiaren emaria erregulatzea; eta, azkenik, jolas- eta atsedengune izatea, jende asko bertaratzen baita udan. Urizarri eta Arroia herrien artean kokatzen da urtegia, eta 1957. urtean hasi zen funtzionatzen.

Laster iritsiko gara Mendibil herrira, eta oso hurbil hurrengo ere, Amarita. Hauxe da Gasteiz udalerriaren iparraldeko muga markatzen duen herrietako bat. Nabarmentzekoa San Pedro eliza, XIX. mendekoa, nahiz eta dorrea eta sakristia lehenagokoak izan, XVIII. mendekoak. Eta hemendik Urbina (698m) mendiaren inguruetaraino, eta handik hurbil dagoen Urbinara jaitsiko gara, bertan amaituko dugularik zeharkaldi polit hau.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Estibalitzko santutegia - Urbina

Beharrezko denbora										5,00	
Goranzko desnibel metatua										370 metro	
Beheranzko desnibel metatua										450 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia										21.540 metro	
	Inguru nea	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus galekua 17/24) eta Pio XII.aren plaza (Bus galekua 24/27)
Aurkezteko ordua	07:40 (Bilbo plaza) eta 07:45 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	07:45 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2016-5-5eko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.

b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (fA943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

